



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 19a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 500 biztanletik beherako Nafarroako udalei buruzko fiskalizazio-txostena, 2010 ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Antsoingo Udaleri buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (23. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

500 biztanletik beherako Nafarroako udalei buruzko fiskalizazio-txostena, 2010 ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 500 biztanletik beherako Nafarroako udalei buruz Comptos Ganberak egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatu txostenaren edukari dagokionez.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

500 biztanletik beherako Nafarroako udalei buruzko fiskalizazio-txostena, 2010 ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (2. or.).

II. Helburuak (3. or.).

III. Norainokoa eta mugak (3. or.).

IV. Ondorio orokorrak (4. or.).

IV.1. 500 biztanletik beherako Nafarroako Toki Azpisektorea. (4. or.).

IV.2. Bidalitako galdetegiaren ondorioak (5. or.).

IV.3. Azpisektore horren aurrekontuari buruzko informazio orokorra (11. or.).

IV.4. Azpisektore horren informazio sozioekonomikoa (14. or.).

V. Bukaerako gogoetak (18. or.).

Eranskina. Udalerrien banaketa eremu geografikoen arabera (22. or.).

Apendizeak. Udallerri bakoitzeko fitxa bana.

Oharra: Aipaturiko apendizeak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

2011. urterako Comptos Ganberaren Fiskalizazio Programaren barruan 500 biztanletik beherako Nafarroako udalerriei buruzko txosten edo azterketa bat osatuko da (2010 ekitaldia).

Txosten horren norainokoa Nafarroako Comptos Ganberaren 2011-2016 urteetarako Plan Estrategikoak Toki Sektore Publikorako egindako aurreikuspenen barruan kokatzen da.

Biztanle-tarte horretan 150 udal daude guztira, eta 28.871 biztanle zituzten, guztira, 2010. urtean. Nafarroa osoa kontuan hartuta:

- Udalen ehuneko 55 osatzen dute
- Biztanleriaren ehuneko 4,41.

Landa-lana 2011ko apiriletik irailera bitartean egin zen, ikuskaritzako bi teknikariz, praktiketako lizentziadun batez eta auditore batez osatutako taldearen bitartez. Gainera, Comptos Ganberako zerbitzu informatiko, juridiko eta administratiboen laguntza jaso dute.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean azaltzen da zer helburu bilatzen diren; hirugarrenean, lanaren norainokoa eta aplikatutako metodologia; eta laugarrenean, lortutako ondorioak azaltzen dira. Azkenik, bosgarren atalean, hainbat gogoeta egiten dira Nafarroako udalmapa berrantolatzekeko prozesuaren inguruan.

Txostenari udallerri horiek Nafarroako eremu geografikoen arabera banaketa duen eranskin

bat erantsi zaio, gizarte-osasun eremuen arabera-koa.

Bestalde, udal horietako bakoitzak gehigarri bat du, haren aurrekontuari eta egoera sozioekonomikoari buruzko informazio nagusiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu aztertutako udal-letako langileei, Lehendakaritza Departamentuko (Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusia) eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUAK

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 500 biztanletik beherako Nafarroako Udalei buruzko txosten bat egin da.

Txosten horren bitartez honako helburu hauek lortu nahi dira:

a) 500 biztanletik beherako Nafarroako udalen egoera sozioekonomikoari eta aurrekontuen egoerari buruzko ikuspegi orokorra lortzea.

b) Udal horietako kudeaketa-arazo nagusiak hautematea, eta horien egoera finantzarioaren bilakaera erakustea eta bertako finantzek gaur egungo egoera ekonomiko orokorrera egindako egokitzapena aztertzea.

c) Parlamentuari, Nafarroako administrazio publikoei eta jendeari, oro har, udal erakunde multzo horien arazoaren ikuspegia eskaintzea.

d) Comptos Ganberak Nafarroako toki-entitate-etan duen presentziari eta jarduerari eustea, 2011-2016 Plan Estrategikoaren arabera.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Lan hau norainoko honen arabera osatu da:

a) Lehenik, galdetegi bat bidali zitzaizen 150 toki-erakundeei. Galdetegi horretan 55 galdera egiten ziren, guztira; horietatik batzuk galdera itxiak dira -49- eta beste batzuk irekiak -6-.

Galdera itxiak kudeaketa ekonomikoaren eta finantza-egoeraren hainbat alderdiri buruzkoak dira, eta alor honetan bilduta daude:

- Alderdi orokorrak eta zerbitzuak
- Langileak
- Zerga bidezko diru-sarreraren kudeaketa
- Diruzaintza
- Kontratazio administratiboa

- Toki-sektore publikoaren osaera
- Hirigintzaren kudeaketa
- Informazioa eta finantza-egoera

Galdera irekien bitartez ezagutu nahi izan ziren alde batetik arduradunek beren udaletako arazoei buruz zuten iritzia, eta, beste aldetik, botere publikoek arazo horiek konpontzeko har ditzaketen neurriak. Bestalde, galdera bat egiten zen entitate bakoitzeko aurrekontua gaur egungo krisi ekonomiko egoera nola moldatu/egokitu den ezagutzeko.

b) Bigarrenik, tokiko azpisektorearen aurrekontuei eta egoera sozioekonomikoari buruzko informazioa lortzea eta aztertzea. Aurrekontuen alorrean, bai Toki Administrazio Zuzendaritza Orokorra eta/edo udalek berek, aztertutako udal-letako 2007-2010 epeko alderdi ekonomikoari, funtzionalei eta aurrekontu-ratioei buruzko informazioa eduki dute eskura, honako helburu honekin:

- Aztertutako toki-entitateen azpisektorearen eta horren bilakaeraren informazio orokorra lortzea.

- Udal bakoitzaren fitxa bana osatzea -txosten honen eranskin gisa erantsen dira- aurrekontuen adierazle nagusiekin, 2007-2010 tartean izan duten bilakaerarekin eta atxikitzen zaion eremu geografikoaren batez bestekoarekin konparatzea -Nafarroako osasun-eremuen arabera-, eta baita aztertutako udalen batez bestekoarekin ere.

Fitxa hori udal-erri bakoitzaren hainbat datu sozioekonomikorekin osatzen da: demografia, langabezia, sektore ekonomikoak, instalazioak eta zerbitzuak eta parte-hartze politikoa.

Denboraren eremuari dagokionez, kudeaketari dagozkion alderdiek 2010eko ekitaldian jartzen dute arreta. Egoera finantzarioari dagokionez, 2007tik 2010era bitartean izan duen bilakaera aztertzen da.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioak eta arauak aplikatu dira, eta helburuen eta inguruabarraren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira. Galdetegiaren teknika da lan honetarako erabili den tresna nagusia.

Egindako lanaren izaera kontuan hartuta eta ondorioak modu orokorrean aurkezten direnez, txosten hau izapidetzerakoan ez dira aplikatu Comptos Ganbera honen araudian eztabaida tek-

nikorako eta alegazioetarako aurreikusita dauden faseak.

Honako hauek izan dira txosten hau egiteko prozesuari eragin dioten mugak:

- 17 udalek ez diote kudeaketa-galdetegiarri erantzun, hau da, entitate guztien ehuneko 11 eta tokiko azpisektoreko biztanleriaren ehuneko 10 osatzen dute. Zehazki, hauek izan dira entitate horiek:

Udala	Biztanleria
Anue	358
Barillas	189
Eratsun	159
Galar	91
Ezkurra	163
Galipentzu	120
Galoze	101
Gorza	53
Imotz	444
Xabier	106
Mendaza	333
Ollaran	366
Petilla Aragoi	23
Saldias	116
Sartze	68
Tulebras	124
Untzue	133

- Aurrekontuei buruz aztertutako informazioa 125 udalei dagokie –hau da, entitateen ehuneko 83– eta zuzen-zuzenean landu da, berrikusketa-edo azterketa-prozesurik gabe.

- Kasu guztietan ezin izan da entitate horien informazio sozioekonomikoa lortu, kasu askotan informazio hori ez baitago udalez udal berezita.

IV. ONDORIO OROKORRAK

Ondoren, egindako lanetik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira.

IV.1. 500 BIZTANLETIK BEHERAKO NAFARROAKO TOKI AZPISEKTOREA.

Toki Azpisektore hori, 2010ean, 150 udalek osatzen dute, hau da, Nafarroako udalen ehuneko 55; estatu osoa hartuta, ehuneko 47 osatzen du.

Udal horien artetik, 34 udal konposatuak dira, eta 141 kontzeju dituzte guztira, hau da, Nafarroako kontzejuen ehuneko 40.

Entitate horiek 28.871 biztanle dituzte guztira, hau da, Nafarroako biztanleria osoaren ehuneko 4,41. Biztanleria horren barruan, 7.303 biztanle aurreko kontzejuetan errolatuta daude.

Biztanle-tarteen arabera, udalerrri horiek eskala hauen arabera sailkatzen dira:

Tartea	Udal-kopurua	%	Biztanleak	%
< 50	9	6,0	334	1,2
51-100	27	18,0	1.931	6,7
101-150	31	20,7	3.706	12,8
151-200	26	17,3	4.515	15,6
201-250	13	8,7	2.956	10,2
251-300	11	7,3	3.014	10,4
301-350	14	9,3	4.642	16,1
351-400	10	6,7	3.739	13,0
401-450	5	3,3	2.141	7,4
451-500	4	2,7	1.893	6,6
Guztira	150	% 100	28.871	% 100

Ikus daitekeenez, udal horien ehuneko 71ek 250 biztanle baino gutxiago dituzte, eta azpisektore osoaren biztanleriaren ehuneko 46 osatzen dute.

192 biztanle udalerriko da udal horietako batez besteko biztanleria; baina alde handiak daude batzuetatik besteetara.

	Udal kopurua	%
Ipar-mendebaldeko eremua	20	13,33
Ipar-ekialde-Pirinioetako eremua	49	32,67
Iruñeko eremua	16	10,67
Lizarrako eremua	55	36,67
Tafallako eremua	7	4,67
Tuterako eremua	3	2,00
Guztira	150	% 100

Hau da, Lizarrako eremuan eta Ipar-ekialdeko eremuan pilatzen dira nagusiki; era berean, aipagarria da horietako zein udalerrri gutxi dauden Tuteran eta Tafallako eremuetan.

2006-2010 urteetan, bestalde, horietako biztanleriak gora egin du kopuru absolutuetan, 90 biztanle guztira, eta horrek ehuneko 0,31ko igoera baino ez du adierazten. Foru Komunitateko biztanleria ehuneko 7 baino gehiago igo zen epe horretan.

Nafarroako batez besteko horren gainetik daude Iruñeko eremuko –ia-ia ehuneko 9ko igoerarekin– eta Tuterako eremuko –ehuneko 7– 500 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak, hiri horiek duten eragin handiaren ondorioz. Gainerako eremuetan, oro har, biztanleriak behera egiten du.

2010ean, udal horiek 39,33 eta 41,43 milioi euro bitarte xahutu eta sartu dituzte, hurrenez hurren. Biztanleko gastua 1.650 eurokoa da, eta diru-sarrerak, berriz, 1.738 eurokoak.

IV.2. BIDADALITAKO GALDETEGIAREN ONDORIOAK

Lehenik, aipatzekoa da handia izan dela lankidetzeta-maila: toki-entitateen ehuneko 89k erantzun zioten aipatutako galdetegiari –150 entitatetatik 133k–.

Lortutako emaitzak bi azpiataletan elkartu dira, eta alderdi hauei egiten diete erreferentzia:

Prozesuak	Udalak (%)
Zerga-zerrendak egitea	81
Diru-bilketaren kudeaketa	79
Kontularitza	81
Nominak	19

Eremu geografikoen arabera banaketari dagokionez, Nafarroako gizarte-osasun arloko zonifikazioaren arabera, udalerrri horiek eremu/zona hauetan banatzen dira:

IV.2.1. Galdera itxiei buruzko ondorioak

IV.2.2. Galdera irekiei egindako erantzunen laburpena

IV.2.1. Galdera itxiei buruzko ondorioak

Galdetegiko galdera itxien emaitzetatik ateratako ondorioei dagokienez, honako hauek azpimarratzen ditugu, galdetegia bera osatzen zuten zortzi azpiataletan elkartuta.

A. Alderdi orokorrak eta zerbitzuak

- Herritarrek udal-bulegoen bitartez jotzen dute lehenik udalera –udalen ehuneko 80–, eta telefono bidez, bigarrenik.

- Udalen ehuneko 56k webgunea dute, baina gehienetan ez da izapideak egiteko edo Administrazioako agiriak jaisteko aukerarik ematen.

- Kontularitzari dagokion kudeaketa soilik udaleko langileek egiten dute udalen ehuneko 70ean; ehuneko 10ean, aldiz, kanpoko langileek baino ez dute egiten.

- Udalen ehuneko 59k ekitaldia hasi eta gero onartu dituzte 2010eko aurrekontuak.

- Udalen ehuneko 81ek indarrean den legediak adierazitako epeen barruan onartu dituzte 2009ko kontu orokorrak.

- Informatizatuta dauden kudeaketa-prozesu nagusiak honakoak dira:

- 105 udalek idazkariaren postua partekatzen dute beren artean edo erreferentziazko beste batekin, nahitaezko batasunaren formularen bitartez.

- 15 udalerrri ez daude mankomunitate edo zerbitzu-batasun batean sartuta

- Mankomunitateen bitartez ematen diren zerbitzu nagusiak honakoak dira:

Bateratutako zerbitzuak	Udalak (%)
Hiri-hondakin solidoen bilketa	69
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	68
Uraren hornikuntza eta estolderia	32
0-3 urteko haur-eskolak	19
Musika-eskola	16
Turismo-bulegoa	11

- Udalen 51k ez du kultura-kirol jardueren egitaraurik eskaintzen.

- Udal konposatuaren kasuan, ezin da ondorio orokorrik atera kontzejuek udalei utzitako eskumenei edo udalek haiei utzitakoei buruz, erantzunak era askotakoak izan baitira.

- Udalen 47k ez dute beren jabetzako ondasunen inbentariarik. Inbentarioa dutenen artean, bost

udalek baino ez dute 2006ko ekitaldiaz gero onartutako inbentariarik.

- Udalen 20k ez dute beren jabetzaren gaineko asegururik.

B. Langileak

- Udal horiek 2010eko abenduaren 31n honako langile hauek zituzten (taulan arduraldia osoa edo partziala duten zehazten da):

Langileak	Guztira	Lanaldi osoa	Lanaldi partziala
Idazkaria-kontu-hartzailea	125	66	59
Administraria	39	30	9
Administrari laguntzailea	57	32	25
Zerbitzu ugari	60	37	23
Udaltzainak	6	4	2
Bestelakoak	23	5	18
Guztira	310	174	136

Hau da, aztertutako udalek 310 langile dituzte guztira: batez beste 2,33 entitateko. Langile horien artean, ehuneko 56k arduraldi osoa dute udalean, eta ehuneko 44k beste toki-entitate batzuekin banatzen dute arduraldia.

- Udalarekin duten lotura juridikoari erreparatuz gero, aurreko langile horiek era honetara banatzen dira, ehunekotan:

Lotura	%
Funtzionarioa	20
Lan-kontratu finkoa	23
Aldi baterako lan-kontratua	21
Administrazio-kontratua	36
Guztira	% 100

Ikusten denez, kontratu gehienak kontratu administratiboak dira, eta horiek, nagusiki, idazkariaren eta kontu-hartzailearen eginkizunak batera biltzen dituzten lanpostuei dagozkie.

• Mailen arabera, langile horiek honela biltzen dira:

Mailak	%
A	41
B	0
C	12
D	28
E	19
Guztira	% 100

Aipatzekoa da ez dagoela tarteko langile teknikaririk. Aurreko taulatik ondorioztatzen den organigrama orokorra bi maila hauetan laburtzen da: goimailako teknikariak eta administrariak eta laguntzaileak.

• Udalen ehuneko 56k ekitaldia hasi eta gero onartzen dituzte langileen plantilla organikoak, eta udalen ehuneko 18k ez dituzte onartzen.

• Nominen kudeaketa: udalen ehuneko 75ean udaletik kanpo egiten dira.

• Udalen ehuneko 89k 2010ean aplikatu dituzte udal-langileen ordainsariei dagozkien murrizketak, eta udaleko 852,17 euroko aurrezpena lortu da, batez beste. Aurrezpen hori legez ezarritako helburuetarako erabili da –aurreko ekitaldiko geldikin negatiboa, zorraren amortizazioa aurreratzea edo inbertsio berriak–, eta modu baliokidean erabili da hiru helburuetarako.

• Udal horietako zinegotziei dagokienez, udalbiltzarkide batek baino ez du ordainsaria jasotzen,

arduraldi osoz; 59 udalbiltzarkidek arduraldi partzialari dagokiona kobratzen dute, eta gehienek kalte-ordainak eta laguntzak jasotzen dituzte. 8 udaletan ez zaie inolako kopururik esleitzen.

• Udalen ehuneko 16k onartu dute, Udalbatza-ren akordio baten arabera, udalbiltzarkideek jasotako diru-sarreraren parte bat PFEZetik salbuestea.

C. Zerga bidezko diru-sarreraren eta beste diru-sarrera batzuen kudeaketa

• Udalen ehuneko 88ek indarrean den legediak adierazten dituen derrigorrezko zergak ordainarazten dituzte.

• Udalen ehuneko 57an katastroko balioen eguneratzea 2005. urtearen aurrekoa da.

• Taula honetan azaltzen dira zerga nagusietan aplikatutako batez besteko tipoak eta indarrean den araudiak kontuan hartzen duen aukerarekiko konparazioa:

	2/1995 FL	500 biztanletik beherako udalen batez bestekoa
Lurraldeko kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	0,34
JEZ	1 eta 1.4 bitarte	1,1
EIOZ	2 eta 5 bitarte	3,06

Hau da, zerga-tasen batez bestekoa legeak aurreikusitako batez bestekoari dagokion tartean dago. Zerga-tasa horiek udalen ehuneko 77an onartu dira, ekitaldia hasi aurretik.

• Udalen 47k kobratzeko borondatezko epea igaro eta gero aplikatzen eta kobratzen du zerga-zorrari dagokion gainordaina.

• Agente exekutiboari dagozkion lanak, kasuen ehuneko 62an, Udaletik kanpoko langileek egiten dituzte; udalen ehuneko 19an, berriz, ez du inork egiten.

• Diru-sarrerei dagokienez, aipatzekoak dira, halaber, ondarearen ustiapenagatik aitortutako eskubideak, honako taula honetan adierazten den moduan:

Kontzeptua	Diru-sarrerak
Herri-aprobetxamenduak	1.142.414
Energiaren salmenta	673.584
Harrobien ustiapena	562.818
Ehiza- eta arrantza-barrutiak	1.089.829
Kontzesio administratiboak	56.513
Higiezinen alokairua	525.281

D. Diruzaintzaren kudeaketa

- Diruzaintzaren kudeaketari dagokionez, udalen ehuneko 43an banketxeek egiten dute, eta ehuneko 36an udaleko bertako langileek.

- Ordaintzeko ohiko prozedurak banketxeko helbideratze bidezko prozeduran –ordainketen ehuneko 44 inguru– eta banketxeko transferentzietan eta transferentzia elektronikoetan pilatzen dira –ehuneko 43–. Ordainketen ehuneko 3 eramailearentzako txeke bidez egiten dira.

- Kobrantzei dagokienez, ohikoena banketxe bidezko helbideratzea da, kobrantza guztien ehuneko 76.

- Udalen ehuneko 58an, funtsen erabilera batera egiten da, alkatearen eta idazkariaren artean, gehienetan. Ehuneko 35ean, sinadura bakar bat behar da.

E. Kontratazio administratiboa

- 2010ean, udal horiek 243 obra-kontratu adjudikatu dituzte, 19 hornidura-kontratu eta 107 laguntza-kontratu, prozedura hauen bitartez:

	Obra		Hornidurak		Laguntza	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Irekia	29	4.620.346	0	0	7	519.358
Mugatua	7	655.590	0	0	0	0
Hitzartua	207	8.209.127	19	752.443	100	752.442
Guztira	243	13.485.063	19	752.443	107	1.271.800

Hau da, udal horiek 15,6 milioiko gastua kontratatu dute guztira, edo gauza bera dena, 118.000 euroko batez bestekoa udaleko. Kontratu kopuruari zein zenbatekoari dagokionez, gehien erabiltzen den prozedura negoziatua da; kontratu motaren arabera, obra-kontratuak gastu guztien ehuneko 86 hartzen dute.

F. Toki Sektore Publikoa

- Udalen 9k bitarteko erakunde bat osatu dute (Erakunde Autonomoak, merkataritza-sozietateak edo fundazioak) zerbitzuak emateko, taula honen arabera:

Udala	Bitarteko erakundea	Jarduera	Enplegatuen kopurua 2010-XII-31
Antzin	Promociones Irealdea SL	Urbanizatzailea	0,5
Donamaria	Babespeko etxebizitzak	Gizarte-babesa	-
Izaba	Producción Energía Eléctrica, SL	Elektrizitatea	0,5
Izaba	Distribuidora de electricidad, SL	Elektrizitatea	0,5
Leotz	Orbalan, SL	Udal-zerbitzuak	2
Oiz	Babespeko etxebizitzak	Gizarte-babesa	-
Orbaitzeta	Electra Orbaitzeta, SL	Elektrizitatea	0,5
Erronkari	Julián Gayarre fundazioa	Kultura	1
Urrotz	Babespeko etxebizitzak	Gizarte-babesa	-
Zugarramurdi	Zugarramurdiko Garapena, SL	Ondarearen kudeaketa	5

Bitarteko entitate horietan 10 langilek lan egiten dute, guztira.

G. Hirigintza

- Udalen 45ek udal plan orokor bat dute: ehuneko 20 arau subsidiarioekin eta ehuneko 14 hiri-lurraren mugaketarekin. Entitateen ehuneko 28k ez dute inolako plangintza-tresnarik.

- Hirigintzaren alorreko kudeaketa toki-erakundearen beraren baliabideekin egiten da kasu

gehienetan –udalen ehuneko 71–. Gainerakoek kanpoko baliabideekin egiten dute, laguntza-kontratuen bitartez bereziki.

- Udalen ehuneko 96k ez dute Lurraren Udal Ondarearen arauz dagokion erregistroa osatu.

- Hirigintzako jardueri dagokienez, taula honetan azaltzen dira egindako eragiketa nagusiak eta zenbat udalek egin dituzten:

Jarduera	Udal-kopurua
Trukeak	4
Hirigintzako hitzarmenak partikularrekin	16
Hirigintzako hitzarmenak beste herri-administrazioekin	2
Udalaren lurzoru-ondareko ondasunen besterentzea	2
Herri-ondareen salmenta eta/edo trukea	7

Hirigintza-aprobetxamenduen ondorioz, udal horiek 71.962 euro jaso dituzte, guztira.

- 2006 eta 2010 bitarteko aldian, udal horietan amaitutako etxebizitzaren kopurua taula honetan zehazten da. Aipatzekoa da zein etxebizitza babestu gutxi dauden.

	2006	2007	2008	2009	2010
Etxebizitza askeak	283	267	252	220	141
Etxebizitza babestuak	0	7	7	2	1

IV.2.2. Galdera irekiei egindako erantzunen laburpena

Galdetegiko galdera irekiei dagokienez, alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

A. Udal horien kudeaketa-arazo nagusiak

- Nafarroako Toki Entitate guztiei sortzen zaizkien arau bidezko eskakizunak, horien tamaina eta giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartu gabe. Horrez gainera, beste administrazioek eskatutako zeregin eta prozedura berriak nabarmen ugaltu direla ikusten da, udal horien egoera kontuan hartu gabe.

- Udal konposatuetan hauteman den kudeaketa-komplexutasuna, udalaren eta kontzejuaren eskumenen arteko koordinaziorik ezaren, biztanleriaren dispersioaren, diru-sarreraren eta kontzejuetan giza baliabiderik ezaren ondoriozkoa.

- Hainbat mankomunitatek edo udal-elkartek elkarrekin zerbitzuak ematearen ondoriozko nola-

baiteko zailtasuna udalaren kudeaketari dagokienez.

- Kanpoko laguntza eskasia teknologia berriak jartzeko –bai udalaren antolamenduan bai herritarrentzat–, hirigintza-arloko kudeaketarako, ingurumenaren babeserako, energia aurrezteko neurri politikoak hartzeko.

- Ez dago Udalaren kudeaketarako egitasmo uniforme eta udalaren premietara egokiturik.

- Idazkari kontu-hartzaileen behin-behinekotasuna.

- Idazkariaren lanpostuaren prestakuntzarik eta espezializazio teknikorik eza udalaren premia berriak betetzeko.

- Idazkariaren presentzia zerbitzua ematen zaien erakundeen artean banatzea. Horrek zaildu egiten du hainbat gai bideratzeko ohiko prozesua, herritarrenganako harreman zuzena eta ordezkari politikoekiko harremanak. Gainera, udal txikiak

direnez eta bertako biztanleria zaharra denez, herritarrenganako zuzeneko arreta funtsezkoa da eta denbora asko behar da.

- Zenbait herriren jendegabetzea eta zahartzea, eta, aldi berean, aste buruetan eta oporraldi-etan izaten den biztanle kopuruaren igoera (biztanleria horrek hainbat zerbitzu eskatzen ditu).

- Udal horien aurrekontuetan, ohiko diru-laguntzen mendekotasuna, diru-sarreraren eskasia eta zerga-presio txikia. Azken batean, udal horien eskasia ekonomikoa, gastuaren eremuan erabakiak modu arrazionalen hartzeko.

- Bertako baliabide eskasia Tokiko Inbertsio Planean bildutako inbertsioei dagokien parte finantzatzeko. Gainera, Planaren banaketan, biztanleriaren faktoreak lehentasuna du azpiegituren alorreko benetako premien aldean.

- Zerbitzu berrien etengabeko eskaera, bai entitateko ahalmen politikoen aldetik bai herritarren aldetik, kontuan hartu gabe finantzaren eta kudeaketaren alorreko baliabideen erabilgarritasuna.

- Epe luzera udal horiek beren gain nekez hartu ahal izango dituzten kostua duten zerbitzu berrien ezarpena.

- Nafarroako aurrekontuen zuzenketak lanak egiteko erabiltzea zenbait udaletan, kontuan hartu gabe horien eta ginerako premiak.

B. Kudeaketa hobetzeko proposatutako irtenbideak

- Gehien proposatu den irtenbideetako bat Nafarroako udal-mapa berrantolatzearen premiari buruzkoa da, nahiz eta, horretarako, hainbat irtenbide proposatzen diren, eta irtenbide horiek ez dira elkarren bateragarri:

- Administrazio-zerbitzuak eta kudeaketari dagozkionak emateko udalen batasuna.

- Udalen derrigorrezko bategitea, uste baita elkartzea ez dela udal txiki horien arazoentzako irtenbidea, eta desegitea proposatzen da.

- Kontzejuak desagertzea.

- Eskualdeko unitateak sortzea, udalei euskarri tekniko emango lioketen diziplina anitzeko taldeekin eta talde kualifikatuekin. Unitate horien barruan, udalak utzi egin nahi dituen zerbitzuak bilduko lirateke –bereziki hirigintza, kontularitzako kudeaketa, katastroak, erregistro zibila eta inbentarioak– eta erosketa-unitate bat sortuko litzateke zerbitzu- eta hornikuntzen kontratazioa zentralizatzeko eta arrazionalizatzeko.

- Mankomunitateen sorrera arrazionalizatzea, lurralde batean mankomunitatean elkartutako entitate bakar batek funtziona dezan.

Berrantolaketa hori eraginkorra izan dadin, beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen azterketa egin behar da, horiei egokitu-tako funtzioak behar bezala burutu daitezzen.

- Udalek eman beharreko derrigorrezko zerbitzuak argitzea.

- Udal bakoitzak eduki beharko lukeen gutxieneko zerbitzu-mailaren definizio objektiboa eta horietara iristeko finantza-plan bat.

- Udal-finantzaketaren eredu berria, udal txiki- en finantza-arazoak kontuan hartuko dituen.

- Kudeaketa erraztuko duten kudeaketa-tresna uniformeak diseinatzea eta horiek ezartzeko laguntzak.

- Idazkari kontu-hartzaileen plazen behin-behinekotasun egoera desblokeatzea.

- Baldintza teknologikoak hobetzea, teknologia berriak erabiltzeko aukera eman dezaten, bereziki administrazio elektronikoa.

- Prestakuntza-plan berezia eta etengabea udal horietako langileentzat.

- Udal horietako ekonomia suspertzeko planak diseinatzea, bai bertako biztanleria bertan finkatzeko bai herritar berriak erakartzeko eta finantza-baliabide gehiago sortzeko.

- Hirigintzako araudia udal horietako lurralde-errealitatera egokitzea.

C. Krisi ekonomikoari aurre egiteko hartutako neurriak

Araudiak ezartzen dituenaz gainera –oinarrian, langileen ordainsariak murriztea–, udal horiek hainbat neurri hartu dituzte beren aurrekontuak orekatzeko helburuarekin. Honako hauek aipatzen ditugu:

- Ohiko gastuei eustea, bereziki oinarritzko zerbitzuei eragiten ez dietenak.

- Funtzionamendu-gastuak ohiko diru-sarreraren arabera kuantifikatzea.

- Inbertsioetan egiten den gastua mugatzea, osorik finantzatu daudenetara.

- Diru-bilketarako prozedurak hobetzea.

- Zorra berriro finantzatzea.

- Diru-sarrera gehiago lortzea –besteak beste, herri diru-sarrerak hobeto aprobetxatuz–, lurralde-aberastasunaren balioespen-txostenak eguneratzea, zerga-tipoak eta tarifak handitzea.

IV.3. AZPISEKTORE HORREN AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Taula honetan, txosten hau egiteko ulean informazioa genuen 500 biztanletik beherako Nafarroako toki-entitateen aurrekontuen 2010eko likidazio metatua erakusten da –150 udaletik, 125–.

GASTUAK	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Eginiko ordainketak
Langileria-gastuak	6.280.837,39	6.308.720,35	5.842.304,60	5.705.978,30
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	9.322.492,29	9.607.392,25	8.478.719,75	7.827.785,12
Gastu finantzarioak	571.965,13	567.272,63	55.317,02	350.852,53
Transferentzia arruntak	4.523.704,10	4.743.019,79	4.367.981,48	4.006.296,41
Inbertsio errealak	21.780.711,97	31.904.702,94	18.197.428,36	14.011.634,73
Kapital-transferentziak	522.478,18	529.678,18	218.803,97	149.108,51
Finantza-aktiboak	86.000,00	104.200,00	468.690,35	468.690,35
Finantza-pasiboak	1.678.166,51	1.719.083,51	1.399.137,88	1.399.137,88
GUZTIRA	44.766.355,57	55.484.069,65	39.328.383,41	33.919.483,83

DIRU-SARRERAK	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Egindako kobrantzak
Zuzeneko zergak	6.138.252,08	6.138.252,08	6.198.927,32	5.879.237,98
Zeharkako zergak	1.512.817,43	1.562.519,28	1.790.647,65	1.657.674,15
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.784.244,64	1.786.290,64	1.902.625,86	1.716.867,27
Transferentzia arruntak	10.913.269,02	11.022.176,21	10.412.558,58	10.164.409,11
Ondare bidezko diru-sarrerak	4.249.895,78	4.257.011,28	3.950.104,14	3.364.189,45
Inbertsio errealen besterentzea	870.079,72	870.079,72	380.291,61	266.416,22
Kapital-transferentziak	16.725.137,40	23.873.427,89	15.626.660,14	8.993.858,00
Finantza-aktiboak	318.682,23	2.536.149,29	356.360,58	356.360,58
Finantza-pasiboak	2.518.143,52	3.699.039,31	814.941,88	814.941,88
GUZTIRA	45.030.521,82	55.744.945,70	41.433.117,76	33.213.954,64

2010ean gastaturiko 100 euro bakoitzeko honakoa izan da, batez beste, erabilera eta finantzaketa:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2010	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa, 2010
Langileak	15	Tributu bidezko diru-sarrerak	24
Bestelako gastu arruntak	33	Transferentziak	63
Inbertsioak	48	Ondarearen diru-sarrerak eta beste batzuk	11
Finantza-zama	4	Zorduntzea	2
	100 €		100 €

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Langileria-gastuek ehuneko 15 hartzen dute; Nafarroako toki-sektore publikoaren batez bestekoa, berriz, ehuneko 27koa da. Ondorioz, udal txiek langile-zama txikiagoa dute.
- Aitzitik, inbertsioetarako gastua –ehuneko 48– toki-sektoreko batez bestekoa baino handiagoa da –ehuneko 33–.

- Finantzaketa-iturriei dagokienez, aipagarria da transferentzietatik eratorritako diru-sarreraren mendekotasun handia, 10 puntu toki-sektorearen batez bestekotik gora.

- Udal txiki horietan zerga bidezko diru-sarrerak per capita toki-sektore osoaren batez bestekotik behera daude (74 euro). Hau da, udal horietako herritarrek Nafarroako udalen batez bestekoa baino zerga-presio txikiagoa dute.

Sailkapen funtzionalari begiratuz gero, era honetara banatzen dira gastuak:

Funtzioa	Zenbatekoa, 2010	%
Zerbitzu orokorrak	9.997.251	25
Babes zibila eta herritarren segurtasuna	296.897	1
Segurtasuna, babesa eta gizarte-sustapena	1.715.886	4
Gizarte izaerako ondasun publikoen babesa	20.405.196	52
Izaera ekonomikoko ondasun publikoen produkzioa	3.319.766	8
Ekonomia-arauketa	915.422	3
Jarduera ekonomikoa eta sektore produktiboen arauketa	761.278	2
Erakunde autonomoak	0	0
Administrazio publikoetarako transferentziak	252.929	1
Zor publikoa	1.663.758	4
Guztira, 2010	39.328.383	%100

Hau da, gastuaren ehuneko 85 gizarte-gastua, Administrazioaren beraren zerbitzuak eta azpiegiturak finantzatzeko baliatzen da.

Azken batean, 500 biztanletik beherako udalen azpisektorearen aurrekontuen erradiografia 2010. urtean era honetara laburtzen da: langile-gastuek pisu erlatibo txikiagoa dute, eta gastua gainerako gastu arruntetan eta bereziki inbertsioetan biltzen da; eta hori guztia, transferentzien bitartez eta

zerga eta ondare bidezko diru-sarreraren bitartez finantzatu da oinarrian. 2010ean, biztanleko zorra 668 eurora iritsi da, Nafarroako Toki Entitateen batez bestekoa baino 205 euro handiagoa. Aurrekontuaren funtzioari dagokionez, gizarte-gastuan pilatzen da gehien.

Hurrengo taulan erakusten da Udal horien adierazle nagusiek eta magnitudeek 2007tik 2010era izan duten bilakaera.

	2007	2008	2009	2010
Izendapena				
Kontuak igorri dituzten udalak	150	150	149	125
Biztanleria	29.583	29.716	29.289	23.842
Gastuak guztira (biztanleko)	2.213,87	2.042,07	1.831,08	1.649,54
Funtzionamendu-gastuak (biztanleko)	775,85	767,77	764,97	783,87
Gastu arruntak (biztanleko)	797,55	794,55	794,88	798,77
Ordainketen betetzea (%)	83,09	82,71	83,96	86,25
Inbertsio garbia (biztanleko)	1.231,58	1.102,73	898,73	747,30
Inbertsio-indizea (%)	59,09	55,19	51,08	46,27
Langile-indizea (%)	9,95	11,46	12,84	14,86
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	2.127,66	1.986,82	1.935,37	1.737,82
Zerga bidezko diru-sarrerak (biztanleko)	447,14	456,65	429,56	414,91
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.026,72	1.035,99	1.011,67	1.017,32
Kobrantzak bete diren (%)	83,75	83,16	82,75	80,16
Transferentzia arruntekiko mendekotasuna (%)	40,82	39,74	41,24	42,93
Aurrezki gordina (biztanleko)	250,87	268,22	246,70	233,45
Finantza-zama (biztanleko)	94,08	118,32	107,55	73,59
Aurrezki garbia (biztanleko)	156,79	149,90	139,16	159,86
Zor bizia (biztanleko)	597,20	767,78	727,34	667,55
Zor bizia/diru-sarrera arruntak	% 58,17	% 74,11	% 71,90	% 65,62
Zorpetze-maila (%)	9,16	11,42	10,63	7,23
Zorpetze-muga (%)	24,43	25,89	24,39	22,95
Zorpetze-ahalmena (%)	15,27	14,47	13,75	15,71
Diruzaintzako gerakina, gastu arruntetan (biztanleko)	503,56	437,60	565,24	540,41
Aurrekontu-emitza doitu (biztanleko)	18,03	32,79	108,65	-1,72

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Biztanleko gastuak ehuneko 25 murriztu dira, bereziki inbertsioen alorrean –ehuneko 39ko murrizketa–.
- Funtzionamendu-gastua per capita antzeratsu gelditu da bitarte horretan, hau da, nolabait eutsi egin zaio.
- Langile-gastuen garrantzia ehuneko 49 handitu da guztizkoari buruz; igoera hori, edonola ere, aurrekontuetan izan den murrizketaren ondorio izan da, eta ez langile-taldeak handitu izanaren ondorio.
- Ordainketak bete diren adierazten duen ehuneko arrazoizko mailan dago, kobrantzen ehunekoaren gainetik.
- Guztizko sarrerak per capita ehuneko 18 murriztu dira, bereziki zerga bidezko diru-sarrerak gutxitu egin direlako.
- Biztanleko aurrezki gordina murriztu egin bada ere, beren finantza-zama murriztu egin denez, aurrezki garbia antzeko balioetan gelditzen da.
- Biztanleko zor bizia ehuneko 12 handitu da bitarte horretan; diru-sarrera arruntan gaineko zor biziaren ratioa ehuneko 75etik beherakoa da, hau da, legeak zorpetze berrirako gaur egun jartzen duen mugaren azpitik.
- Zorpetze-maila ehuneko 21 murriztu da, eta zorpetze-muga ere murriztu egin bada ere, eutsi egin dio zorpetzeko ahalmen ekonomikoari.
- Biztanleko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina hobetu egin da, eta ehuneko 7 handitu da.
- Biztanleko aurrekontu-emitza doitu defizit bihurtu da azken urtean.

Udal bakoitzari dagokion gehigarrietan zehazten da zein diren horien adierazle nagusiak.

IV.4. AZPISEKTORE HORREN INFORMAZIO SOZIOEKONOMIKOA

Eskura dugun informazioaren arabera, aztertutako azpisektore osorako hainbat alderdi sozioekonomikori buruzko ondorio nagusiak azaltzen dira oro har. Udal bakoitzaren egoera dagokion gehigarrian azalduko da.

A. Demografia

IV.1. atalean adierazi bezala, udal horiek 28.871 biztanle dituzte guztira, hau da, Nafarroako biztanleria osoaren ehuneko 4,41. Biztanleria horri dagokionez, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- 16 urtetik beherako biztanleriaren ehunekoa Nafarroako biztanleriari dagokionaren oso azpitik dago.

- Aldiz, 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoa eta gehiegizko zahartzeari dagokiona Nafarroa osokoa baino handiagoa da.

- Era berean, Nafarroako datuaren behetik dago aktiboen ehunekoa, hau da, lan egiteko adinean dauden pertsonen ehunekoa (16 urtetik 65 urtera).

- Bertako biztanleriaren mendekotasun-maila Nafarroa osokoaren oso gainetik dago.

- Emakumezko eta gizonezko biztanle kopuruaren erlazioa Nafarroako batez bestekoaren azpitikoa da.

- Udal horietan atzerritar gutxi daude, ehuneko 0,03 baino ez.

Taula honetan azaltzen dira aurreko balioak eta Nafarroaren egoera eta 500 biztanletik beherako udalen arteko konparazioa egiten da, 2010. urteari dagokionez:

Indizea (2010)	500 biztanletik beherako udaletan (%)	Nafarroan (%)
Feminitatea	0,85	1,00
Gazteria	10,97	16,17
Aktiboak	62,61	66,47
Zahartzaroa	26,81	17,36
Gehiegizko zahartzea	22,32	18,03
Mendekotasuna	0,61	0,50

Laburbilduz, aurreko datuek adierazten digute udal horietako biztanleria nagusiki gizonezkoen osatua dela, oso atzerritar gutxi daudela, 65 urtetik gorakoek biztanleriaren ehuneko 27 osatzen dutela eta ehuneko 11 baino ez direla 16 urtetik beherakoak. Zahartutako biztanleria dela esan daiteke, beraz; gehiegizko zahartzeari buruzko indize-

ak eta mendekotasun-indizeak Nafarroa osokoen oso gainetikoak dira.

B. Langabezia

Taula honetan langabeziak sexuaren arabera udal horietan eta Nafarroan oro har izan duen bilakaera konparatzen da.

Langabezia: Kopurua eta sexua -adin tartea ehunekotan										
	2006		2007		2008		2009		2010	
	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa
Gizonezkoak guztira	245	8.289	264	8.810	407	16.662	536	20.827	595	21.470
%	39,45	39,36	42,44	40,83	47,49	50,56	50,14	51,23	52,94	49,92
Emakumezkoak guztira	376	12.771	358	12.765	450	16.294	533	19.826	529	21.541
%	60,55	60,64	57,56	59,17	52,51	49,44	49,86	48,77	47,06	50,08
Langabezia guztira	621	21.060	622	21.575	857	32.956	1.069	40.653	1.124	43.011

2010. urteko datuen azterketatik honakoa azpimarratzen dugu:

- Langabetuen ehuneko 47,06 emakumezkoak dira, Nafarroako batez bestekoa baino zertxobait hobe, Nafarroan ehuneko 50,08koa baita.

- Langabetu gehienak 25 eta 44 urte bitarteko tartekoak dira, bai gizonezkoen bai emakumezkoen kasuan, eta ehuneko txikiena 25 urtetik beherako biztanletik beherako taldekoak dira, nahiz eta tarte horretan goranzko joera duen 2006. urteaz geroztik.

- 2006. urtea oinarri-urtea hartuta, 2010ean langabeziak ehuneko 81 egin du gora udal horietan, Nafarroan egin duenaren azpitik (ehuneko 104).

- Gizonezkoen artean langabeziak gora egin du ehuneko 143 udal horietan eta ehuneko 159 Nafarroan, eta emakumezkoena baino askoz ere handiagoa da, ehuneko 40,7 eta ehuneko 68,7, hurrenez hurren.

- Adinen arabera, gizonezkoengan igoera nagusia 25 urtetik beherako artean gertatu da (ehuneko 209; Nafarroan, berriz, ehuneko 127). Emakumeen artean, adin guztietan izan da langabeziaren igoera Nafarroakoa baino txikiagoa udal horietan.

Langabeziaren azterketa sektoreen arabera egiten bada, honakoa ikusten da:

Langabezia: Kopurua eta ehunekoak sektorez sektore										
	2006		2007		2008		2009		2010	
	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa	<500	Nafarroa
Nekazaritza	26	399	28	398	35	704	35	1.128	45	1.499
%	4,19	1,89	4,50	1,84	4,08	2,14	3,27	2,77	4,00	3,49
Industria	113	4.250	118	4.242	179	7.045	236	8.666	245	8.283
%	18,20	20,18	18,97	19,66	20,89	21,38	22,08	21,32	21,80	19,26
Eraikuntza	79	2.248	62	2.455	101	5.032	147	6.433	157	6.123
%	12,72	10,67	9,97	11,38	11,79	15,27	13,75	15,82	13,97	14,24
Zerbitzuak	376	13.234	385	13.570	507	18.962	602	22.743	618	24.751
%	60,55	62,84	61,90	62,90	59,16	57,54	56,31	55,94	54,98	57,55
Aurretik lanik gabe	27	929	29	910	35	1.213	49	1.683	59	2.355
%	4,35	4,41	4,66	4,22	4,08	3,68	4,58	4,14	5,25	5,48
Guztira	621	21.060	622	21.575	857	32.956	1.069	40.653	1.124	43.011

- Langabezia gutxien nekazaritzaren sektorean dago, nahiz eta Nafarroan oro har baino ehuneko handiagoan.

- Langabezia gehien duen sektorea zerbitzuen da, ehuneko 57 eta 60 bitarte. Ehunekoak ez dira Nafarroakoen oso bestelakoak.

- Igoera nagusia aurretik lanik izan ez duten (ehuneko 118, Nafarroan ehuneko 153) eta industriari lan egiten duten pertsonen artean izan da (ehuneko 117, Nafarroan ehuneko 94,9).

Konparazioa langabeziak biztanleria osoan hartzen duen ehunekoari buruz egiten badugu, honako balio hauek lortzen ditu:

Langabezia/biztanleria	500 biztanletik beherako udalak	Nafarroa
2006	2,16	3,50
2007	2,17	3,56
2008	2,97	5,31
2009	3,76	6,45
2010	3,89	6,72

Ondorioz, beraz, udal horietako langabezia-ehunekoa Foru Komunitatekoa baino askoz ere txikiagoa da, eta azken bost urteetan ere gutxiago igo da.

Eremua	Biztanleria	Langabeak	Langabezia (%)
Ipar-mendebaldeko eremua	5.604	223	3,98
Ipar-ekialde-Pirinioetako eremua	8.184	242	2,96
Iruñerria	3.661	158	4,32
Lizarrako eremua	9.224	403	4,37
Tafallako eremua	1.885	80	4,24
Tuterako eremua	313	18	4,75

Ondorioz, langabeziaren ehunekoa udal horietan Nafarroako ehuneko orokorraren ia erdia da. Azken bost urteetan ehuneko 81 handitu da, Nafarroako batez besteko ehuneko 104tik behera. Langabeziaren igoerak eragin handiagoa izan du gizonezkoengan emakumezkoengan baino, bereziki 25 urtetik beherakoen artean. Langabezia zerbitzuen sektore-

Eskualdeka, eta udal horientzat, aurreko zerrendak honako banaketa hau izan du 2010. urtean:

an pilatzen da, eta horren ondoren, industrian. Nekazaritzan dago langabezia ehuneko txikiena.

C. Lurralde-aberastasuna. Ondasun higiezinak

2009ko ekitaldiko datuei dagokienez, hona hemen udalerrri horien hiri- eta landa-hektareak guztira:

<500 udalak	Ha guztira
Hiri-hektareak	2.979
Landa- hektareak	382.944
Guztira	385.923

Ikus daitekeenez, lurraldearen ehuneko 99 landa-lurraren sailkapenean dago.

Ondasun higieziari dagokienez, 2006 eta 2009 bitartean, 4.590ean handitu da horien kopurua udalerrri horietan, eta, horrela, 98.298 higiezin izatetik 102.888 izatera igaro da. Igoera hori, ehuneko 4,67koa, Nafarroan oro har izandakoa baino txikiagoa da –ehuneko 10,51–.

Ondasun higiezin horien katastro-balioa, 2009. urtean, 1,51 milioi erokoa izan zen.

D. Industria

2009ko datuen arabera, eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako enpresa nagusien katalogoaren arabera, 500 biztanletik beherako udalerrri horietan daude hamahiru enpresa nagusi. Udalerrri hauetan daude: Areso, Bakaiku, Betelu, Eulate, Murieta, Torres del Río, Girgillao, Lantz, Ledea, Urrotz eta Urdazubi.

Enpresa horien jardueraren sektoreak askotarikoak dira, baina metalaren eta tresnen sektorea (5 enpresa) eta nekazaritzako elikagaien sektorea (3 enpresa) dira nagusiak.

E. Nekazaritza eta Abeltzaintza

Ez dugu udalerrri horien azaleraren xehetasunak erakusten dituen datu bereizirik, landutako eremuei (ureztatuak eta lehorrekoak), baso-eremuei eta eremu elkorrei erreparatuta.

Edonola ere, eremuen arabera, azpimarratzekoa da:

- Ipar-mendebaldeko eta Pirinioetako eremua: Lurra bereziki abeltzaintzarako eta basogintzarako erabiltzen da.

- Iruñeko eremua. Lurra laboreak lantzeko erabiltzen da, nagusiki.

- Erdialdeko eremuak. Laboreak lantzen dira, eta maila apalagoan, mahastiak eta olibondoak. Baso-eremu handia du, gainera.

- Erriberako eremua. Lur landuak dira gehienak, eta zeregin berezia du eremu ureztatuak. Horrez gainera, laboreak, mahastiak eta olibondoak dira nagusi.

F. Ibilgailuak eta Ostalaritza

Udal horietan ibilgailu kopurua per capita 0,47koa da, eta ostalaritzako 44 establezimendu daude erregistratuta guztira.

G. Ikastetxeak

500 biztanletik beherako 150 udalerrietatik 21 udalerritan baino ez dago ikastetxeren bat, eta horiek publikoak dira gehienak. Zehazki, honako zentro hauek dituzte: haur-hezkuntzako 20 zentro, lehen-hezkuntzako 18 zentro, DBHko 6 zentro eta 3 musika-eskola. Ez dago ez batxilergoko ez lanbide-heziketako zentrorik.

Udalerrri horietako lautan baino ez dago liburutegia, eta bitan dute 0-3 urteko eskola.

H. Kirol-instalazioak

Aztertutako udalek guztira 234 frontoi dituzte, 26 igerileku, 16 kiroldegi, 20 futbol-zelai eta bestelako 39 instalazio.

Horietako zazpi udalek ez dute inolako kirol-instalaziorik.

I. Parte-hartze politikoa

Txosten hau egin zen datan eskura genituen datuen arabera –2007ko udal-hauteskunderi dagozkienak–, honakoak dira udal horietako abstentzioen, boto zurien eta boto baliogabeen ehunekoak eta Nafarroako datu orokorreko konparazioa:

Ehunekoak	<500 bizt.	Nafarroa
Abstentzioak	29,6	27,4
Boto zuria	8,9	2,5
Boto baliogabeak	6,7	2,3

Hau da, aztertutako balioei dagokienez, udal horiek balio handiagoak dituzte Nafarroako datu orokorrekin alderatuta.

Udal horietan zinegotzi bat hautatzeko 27,3 boto behar dira batez beste (Iruñean 4.030 boto izan ziren).

18 udalerritan ez zen inolako hautetsirik.

V. BUKAERAKO GOGOETAK

Azken urteetan, eta bereziki gaur egungo ekonomia- eta finantza-krisiaren ondorioz, Europar nabarmena da biztanleria-maila jakin batera iristen ez diren toki-entitateak elkartzeko eta/edo desegitako joera.

Gutxieneko biztanle-maila hori herrialde eta/edo eskualde mailan finkatzen da, bakoitzaren ezaugarrien arabera, eta oso tarte handia hatzen dute, gutxieneko biztanleria 250 biztanlekoa izate-tik 10.000 biztanlekoa izatera igarotzen da.

Nafarroan, azken urteetan, hainbat ekimen egin dira udal-mapa berrantolatzeke, baina ez diote behin betiko irtenbiderik eman gaiari.

Comptosen Ganbarak toki-sektore publikoari buruzko txostenetan, urteak dira aipatu duela Foru Komunitateko udalen mapa berrantolatzeke premia. Ganbera horren ustez, arazoa ez da entitate-kopurua, baizik eta Nafarroako herritarren eskakera eta eskakizunak kudeaketa publiko arrazionalarekin uztartuko dituen administrazio-eredu bat eratzeko premia.

Nafarroako Parlamentuak, 2007ko abenduan, Toki Administrazioaren berrantolaketa administrazio eta funtzionalari eta haren finantziarioari buruzko azterketa bat egiteke eskatu zion Gobernuari.

Akordio haren arabera, Parlamentuak premisa gisa jarri zuen gaur egungo udal eta kontzejuei eutsi behar zaiela, oinarritzko toki-entitate gisa, honako printzipio hauen arabera: kudeaketarako gaitasuna, toki-entitate sendoak, borondatezko bategiteak –hala badagokio–, toki-erakundeen eskumenen katalogoa eta finantzaketa-sistema eguneratua.

Horren ondoriozko azterketak⁽¹⁾ proposatzen du, laburbilduz, kontzejuei udalen mesedetan eskumenak kentzea, udal txikiek (2.000 biztanle bitartekoak) beren administrazio-zerbitzuak biltzea, eta, azkenik, zerbitzu publiko finalistak Mankomunitateen bitartez ematea, elkar gainjarri ez daitezten. Finkatutako jarduera-ildo horiek indarrean den udal-araubidean egindako erreformetan kontuan hartzen hasi dira.

Aipagarria da, txosten honen helburuetarako, aipatutako azterketa horren diagnostikoaren fasean lortutako ondorioak:

- Udal-atomizazioak eragin zuzena du udal-zerbitzuak emateko orduan, erakunde ugari baitira udal-zerbitzuak ematen dituztenak.

- Biztanleriaren aldakortasunak oinarritzko zerbitzuak emateko gaitasunean eragiten du; horregatik, baterako irtenbideek edo irtenbide elkartuek indar berezia dute biztanle gutxi dituzten udalerritan.

- Hainbat eremurik zailtasun handiagoak dituzte zerbitzu administrazioak edo finalistak zuzenean emateko, bereziki oso biztanle gutxiko udalerririk asko dituzten eremuetan.

- 1963an ezarritako idazkaritza-zerbitzurako zerbitzu administrazioen derrigorrezko batasunak oso tresna interesgarria izan dira.

- Partzuergoak izan dira udalek zerbitzuak emateko dituzten gabeziak gainditzeko gehien erabili duten legezko formula, bereziki borondatez sortutako elkarteak direlako.

- Batasuna edo zerbitzu finalistek mankomunitatea udal askok –bereziki biztanle gutxikoak– zerbitzuak modu zuzenean emateko ezintasunak eragina izaten da, eta baita zerbitzu finalista horien espezializazioak eta ondoriozko kostu handiak eragina ere.

- Mankomunitateen lanerako lurralde-eremuak hurbiltasuneko eta auzotasuneko irizpideen eta irizpide politikoen arabera kudeatzen dira, eta, horren ondorioz, lurralde-eremu berean bi partzuergo gainjartzen dira edo mankomunitatearen jardueraren helburutik hurbileko eremuetan ez da zerbitzurik izaten.

- Badira titulartasun mistoko beste elkarte modu batzuk (Toki Garapenerako Partzuergoak eta Turismo Partzuergoak), eta era horretako zerbitzuak modu zehatzean eta espezializatuan emateko helburuarekin atxiki zaizkie horiei udalerririk gehienak.

Aurreikusitako helburuak lortzeko, Ikerketak honako jarduera-ildo estrategiko hauek aipatzen ditu:

1^a. Kontzejuen eskumenen eta funtzioen arrazionalizazioa.

2^a. Udalen eta udalaz gaindiko beste erakunde- eta Foru Komunitatearen arteko lankidetzak-erakundeak osatzea.

3^a. Ahalegin handiagoa egin zerbitzu administrazioen borondatezko batasunetan.

4^a. Mankomunitateen arrazionalizazioa.

(1) "Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketa administrazio eta funtzionalari buruzko azterketa NASURSA (2009)

5^a. Toki-erakundeei behar adina baliabide esleitzea.

Ikerketak biltzen dituen alderdi ugarien artean, kontzejuei, zerbitzu-batasunei eta mankomunitatei buruzko planteamenduetan jarriko dugu arreta.

a) Kontzejuak. Ikerketak azpimarratzen du kontzejuak zailtasunak dituztela zerbitzuak ondo emateko; 354 daude eta horietatik ehuneko 74k 100 biztanle baino gutxiago dituzte. Oro har, ez dituzte behar adina baliabide. Gaur egun erakunde horiek esleituta dituzten eskumenak direla eta, horien lurraldean ezin dute udal arteko beste entitate batzuek jardun, hala nola Mankomunitateek. Aipatzekoa da, halaber, 2007ko kontzejuetarako hauteskundeetan oso parte-hartze txikia izan zela, izan ere, txostenaren arabera, 70 udalbatzek ez dituzte bete herritarren ordezkari-tza-organak.

Ikerketak bere egiten du Nafarroako Arartekoaren Txostena⁽²⁾, zeinak proposatzen duen kontzejuen eskumenak berriro esleitzea, horiek zailtasun handiak baitituzte agindutako funtzioak modu eraginkorrean betetzeko, eta horrek murriztu egiten du herritarrek zerbitzu publiko egokia jasotzeko duten eskubidea. Udalaren eta kontzejuen arteko lankidetzaren hitzarmen integralak egiteko formula proposatzen du, eta horiek desagertzearen arrazoiak herritarrek bertako kudeaketan ez parte hartzea dela kontuan hartzea. Zehaztu beharra dago Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak Arartekoaren Txosten horretan aipatutako ondorioen kontrako iritzia agertu zuela.

b) Zerbitzu administratiboaren batasuna. Zerbitzu administratiboaren mapa arrazionalizatzeko, Txostenak zerbitzu administratiboaren borondatezko batasunaren aldeko hautua egiten du.

Proposatutako ereduaren helburua da zerbitzu administratiboak antolatzea zerbitzu administratiboaren batasun ugariaren bitartez; batasun horiek idazkaritzako eta esku hartzeko funtzioak beteko lituzkete, baina horiez gainera beste zerbitzu finalistak eman ditzakete, Mankomunitateek ematen dituzten eraginkortasun berberaz.

1.500-2.000 biztanleko atalasearekin, udal-batasun guztietan zerbitzuak ematen dituzten batasunetan idazkari batek eta/edo kontu-hartzaile batek jardun behar dute. Batasunaren egoitza biztanle gehien dituen udalerrian zentralizatzen da, eta bertan kokatzen dira zerbitzu informatikoak. Udal edo kontzeju bakoitzak langile administratiboaren zerbitzuak emango ditu laguntzeko, eta horrek

erraztu egingo luke herritarrenganako zuzeneko arreta, eta gaur egungo zerbitzua hobetuko luke.

Batasunak administrazioko edo kudeaketako ohiko funtzioak har ditzake, hala nola kale-argiteria, kale-garbiketa, hilerriak zaintzeko eta mantentzeko lanak; jarduera horiek modu eraginkorragoan ematen dira elkartuta, lortutako eskalako ekonomien arabera.

c) Mankomunitateak. Zerbitzu finalistetarako, mankomunitatea da erabiltzen den elkarte-formula; era horretara, bermatu egiten da aurretik daudenak bateratzea eta antolatzea, saihestu egiten dira bikoiztasunak eta lurralde-gainjartzeak eta berdinu egiten dira zerbitzu administratiboaren funtzionamendu- eta kudeaketa-irizpideak. Interes orokorreko mankomunitatea da administrazioa berrantolatzeko funtsezko egitura.

Ikerketak berrikuntza-proposamen asko ematen ditu erakunde horiei dagokionez:

- Elkartutako entitateen ordezkari-tza politikoa, biztanleriaren arabera.
- Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak jarritzea horien eskumenak kudeatzeko.
- Kudeaketa-adierazleak, herritarrentzako zerbitzuen gutuna eta kalitate-helburuak ezartzea.
- Dagokion arau-aldaketa eginez gero, esleitzen zaizkien eskumenak kudeatuko dituzte eta ez bakarrik udalek beren esku utziak.
- Foru Komunitateak Administrazioa deszentralizatzeko prozesuan emandako eskumenak eta funtzioak hartuko dituzte.
- Erabiltzaileei kobratutako tarifen eta elkartutako udalerriek hitzartutako tarifen ondoriozko defizita estaltzeko transferentzien bitartez finantzatuko dira. Bestalde, Toki Ogasunen Funtsetik transferentzia arruntak diseinatzea aurreikusten da, gastu arruntak estaltzeko. Mankomunitateak Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsa da sendotu nahi den erudia.

Ondorioz, Nafarroak udal-zerbitzuen kalitatea ziurtatzearen alde egin du –zerbitzuak mankomunitateen bitartez emanez, eta aurretik horiek berrantolatuz–, eta baita gastu administratiboaren gutxitzearen alde ere –zerbitzu administratibo horiek batuz, borondatez lehenbizi eta derrigorrez gero–.

Azpimarratu beharra dago Ikerketa horren emaitzak, maila handi batean, berretsi egin direla

(2) "Nafarroako Kontzejuen eskumenei buruzko txosten berezia" Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 61. zkia. 2008ko ekainak 27.

Ganbera horrek 500 biztanletik beherako udalei igorritako galdetegiko erantzun irekietan azaldutako aipamenekin.

Azterketa horren emaitza gisa, 2009ko martxoan, Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioaren Batzordean Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketa administratibo eta funtzionalari buruzko txosten bat egiteko batzorde txostengile bat sortu zen. Txosten horren emaitzak, lan honen helburuetarako, honako hauek dira labur-labur:

1. Nafarroako Gobernuari lege-proiektu bat egiteko eskatzea, zeinetan kontuan hartuko den Nafarroako toki-entitateen egitura antolatzeke mapa bat, honako egitura-maila hauekin: kontzejuek, udalak, zerbitzu administratiboetarako batasunak eta eskualdeak, mankomunitateak edo udalaz gaindiko beste erakunde batzuk. Mapa hori honako printzipio hauen arabera osatuko da:

- Subsidiarotasuna
- Eskumenen argitasuna
- Finantza-nahikotasuna
- Solidaritatea

2. Udalerriek gaur egungo itxurari eutsiko diote, parte har dezaketen elkartzeko prozesuen eraginpean baino ez.

3. Administrazio-zerbitzuetarako batasunak borondatez sortuko dira hiru urteko epean, eta, epe horren ondoren, derrigorrez.

4^a. Mankomunitateei, eskualdeei edo udalaz gaindiko beste entitateei lurraldeko toki-entitateen ahalmen guztiak emango zaizkie, zerga-ahalmenak barne.

5^a. Kudeaketa gaitasun handiagoa behar duten kontzejuen gaur egungo eskumenak udalen alde berriro emateko aukera hartuko da kontuan, eta bakoitzaren nortasunarekin eta ondarearen aprobetxamenduari zerikusia dutenak utziko zaizkie haiei.

Aurreko ondorio horiek hainbat arautan gauzatu hasi dira; esate baterako, martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legeak aldatu egiten du Nafarroako Toki Entitateen zerbitzura jarduten duten langileei buruzko VII. titulua, eta administrazio-zerbitzuetarako batasunak sortzeko aukera aztertzen du; era berean, epe bat finkatzen du Nafarroako Gobernuak toki-mapa eta Nafarroako toki-entitateen antolamendua arautuko duen foru lege proiektu bat igor diezaion Parlamentuari. Proiektu hori aurreikuspen borondatezko epe mugatu baten ondoren ezarriko da derrigorrez.

Gure iritziz, eta 500 biztanletik beherako udalerrietan arreta jarrita, udalak ezabatzeari/elkartzeari buruzko gaur egungo eztabaidak honako baldintza hauek hartu behako lituzke kontuan:

- Biztanleria hainbat gunetan sakabanatuta dago lurraldearen barruan.
- Biztanleria ez da ez handitzen ez txikitzen, eta gero eta zaharragoa da.
- Etengabe eskatzen dira derrigorrezkoak ez diren zerbitzu berriak, eta horrek udalaren egoera finantzarioan eragiten du.
- Nafarroako Gobernuaren transferentzien finantza-mendekotasun handia dute.
- Giza baliabideen eta baliabide material urriak dituzte berezko ahalmenak eta borondatez hartutako eskumenak gauzatzeko.
- Kontzejuekin udal konposatutetan sortzen diren kudeaketa-arazoak.
- Teknologia berrietara iristeko eta horiek erabiltzeko zailtasun teknikoak eta giza zailtasunak.
- Erabateko plangintzarik ezaren ondorioz, zerbitzuen eta horietarako instalazioen katalogo bat osatu eta ezarri da, tokiko ikuspegitik.

Azken batean, azterketa horretan ez da saritu behar gastu publikoaren aurrezkiak; izan ere, udalerrri bat elkartzeko den edo desagertzen den alde batera utzita, hainbat zerbitzu, nola diren administrazio zerbitzuak, ura, saneamendua, hondakin-bilketa, argiztapena, segurtasuna, gizarte-babesa, etab. nahitaez eman behar zaizkie herritarrei. Eta oinarrizko zerbitzu horiek osatzen dute udal txiki horiek egiten duten gastuaren ehuneko oso handia.

Berrantolatzeko prozesuek, beraz, herritar guztiek zerbitzu publiko horietara iristeko aukera bermatu behar dute, kokalekua kontuan hartu gabe, eta zerbitzu horien eraginkortasuna eta kalitate hobetzea bilatu behar dute. Eta hori guztia lurraldearen plangintza egoki baten barruan eta gastu publikoaren arrazionaltasun printzipioak agindua.

Horrez gainera, kontzejuek gaur egun betetzen duten paperari buruzko gogoeta-prozesu bat jarri behar da abian.

Helburu horietara iristeko ezinbestekoa da –udal barrutiarekin beti bat ez datorren lurraldearen ikuspegitik– toki-entitateek beren gain hartu behar dituzten eskumenen eta prestazioen gutxieneko mailaren definizio argia egitea eta horrekin bat etorriko den finantzaketa. Eta hori guztia ahaztu gabe gaur egungo egoera ekonomikoaren eraginez egin beharra dagoela derrigorrezkoak ez

diren zerbitzuen gastu-politiken azterketa zehatza, inbertsio berrien lehentasunen azterketa eta horiek izango duten mantenimendua balioespena, emandako zenbait zerbitzuren neurriari eta funtzionamenduari buruz azterketa zorrotza, eta, kasu zehatzetan, herritarren ekarpen finantzario handiagoa.

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan dute eragina; hori dela eta, adostasun zabala lortzen saiatu behar da,

herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz betiere.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

ERANSKINA. UDALERRIEN BANAKETA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA

UDALA	EREMUA	UDALA	EREMUA
Abaigar	Lizarra	Izaba	Pirinioa
Abaurregaina	Pirinioak	Iturmendi	Ipar-mendebaldea
Aburrepea	Pirinioak	Itzagaondoa	Pirinioa
Aberin	Lizarralde	Itzaltzu	Pirinioa
Adios	Iruña	Jaurrieta	Pirinioa
Aguilar de Codés	Lizarralde	Xabier	Erdialdeko Nafarroa
Antzin	Lizarralde	Lana	Lizarralde
Anue	Ipar-mendebaldea	Lantz	Ipar-mendebaldea
Aranarache	Lizarralde	Lapoblación	Lizarralde
Arano	Ipar-mendebaldea	Larragoa	Lizarralde
Aras	Lizarralde	Elizagorria	Lizarralde
Artzibar	Pirinioak	Leatxe	Erdialdeko Nafarroa
Arellano	Lizarralde	Legarda	Iruña
Areso	Ipar-mendebaldea	Legaria	Lizarralde
Aria	Pirinioak	Leotz	Erdialdeko Nafarroa
Aribe	Pirinioak	Lerga	Erdialdeko Nafarroa
Armañanzas	Lizarralde	Lezaun	Lizarralde
Arruazu	Ipar-mendebaldea	Lede	Erdialdeko Nafarroa
Artazu	Iruña	Lizoainibar-Arriasgoiti	Pirinioa
Atetz	Ipar-mendebaldea	Longida	Pirinioa
Auritz/Burquete	Pirinioak	Lukin	Lizarralde
Azuelo	Lizarralde	Luzaide	Pirinioa
Bakaiku	Ipar-mendebaldea	Mañeru	Lizarralde
Barbarin	Lizarralde	Marañón	Lizarralde
Bargota	Lizarralde	Mendoza	Lizarralde
Barillas	Tutera	Metauten	Lizarralde
Beintza-Labaien	Ipar-mendebaldea	Mirafuentes	Lizarralde
Beire	Erdialdeko Nafarroa	Elo	Pirinioa
Beraskoain	Iruña	Morentin	Lizarralde
Betelu	Ipar-mendebaldea	Mues	Lizarralde
Bidaurreta	Iruña	Murieta	Lizarralde
Biurun-Olkotz	Iruña	Muruzabal	Iruña
Burgi	Pirinioak	Nabaskoze	Pirinioa
Cabredo	Lizarralde	Nazar	Lizarralde
Gazteluberri	Pirinioak	Oko	Lizarralde
Ziritza	Iruña	Odieta	Ipar-mendebaldea
Desojo	Lizarralde	Oiz	Ipar-mendebaldea
Donamaria	Ipar-mendebaldea	Olaibar	Ipar-mendebaldea
Etxarri	Iruña	Olexoa	Lizarralde
El Busto	Lizarralde	Ollaran	Iruña
Elgorriaga	Ipar-mendebaldea	Oloritz	Erdialdeko Nafarroa
Eneritz	Iruña	Orbaizeta	Pirinioa
Eratsun	Ipar-mendebaldea	Orbara	Pirinioa
Ergoiena	Ipar-mendebaldea	Orisoain	Erdialdeko Nafarroa
Eslaba	Erdialdeko Nafarroa	Orontze	Pirinioa
Espartza	Pirinioa	Orotz-Betelu	Pirinioa
Esprontzeda	Lizarralde	Orreaga	Pirinioa
Etaiu	Lizarralde	Petilla Aragoi	Erdialdeko Nafarroa
Eulate	Lizarralde	Piedramillera	Lizarralde
Ezkaroze	Pirinioa	Puiu	Erdialdeko Nafarroa
Ezkurra	Ipar-mendebaldea	Erromantzatua	Pirinioa
Ezporogi	Erdialdeko Nafarroa	Erronkari	Pirinioa
Galipentzu	Erdialdeko Nafarroa	Zare	Erdialdeko Nafarroa
Galoze	Pirinioa	Saldias	Ipar-mendebaldea
Garaioa	Pirinioa	San Martin Unx	Erdialdeko Nafarroa
Garde	Pirinioa	Jaitz	Lizarralde
Garralda	Pirinioa	Puiu	Erdialdeko Nafarroa
Genevilla	Lizarralde	Erromantzatua	Pirinioa
Goñi	Iruña	Erronkari	Pirinioa
Gorza	Pirinioa	Zare	Erdialdeko Nafarroa
Gesalatz	Lizarralde	Saldias	Ipar-mendebaldea
Girgillao	Iruña	Jaitz	Lizarralde
Hiriberri	Pirinioa	San Martin Unx	Erdialdeko Nafarroa
Ibargoiti	Pirinioa	Santsol	Lizarralde
Iguzkitza	Lizarralde	Sartze	Pirinioa
Imotz	Ipar-mendebaldea	Sorlada	Lizarralde
Irañeta	Ipar-mendebaldea	Tirapu	Iruña

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Antsoaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatu txostenaren edukiari dagokionez.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (23. or.).
- II. Helburua (25. or.).
- III. Irismena (25. or.).
- IV. Iritzia (26. or.).
 - IV.1. Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra. (26. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (26. or.).
 - IV.3. 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoera (26. or.).
 - IV.4. Aholkuen jarraipena (28. or.).
- V. 2010eko kontu orokor bateratuaren laburpena (29. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (29. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (30. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (30. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (31. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (32. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioak eta aholkuak (33. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (33. or.).

VI.2. Langileak (33. or.).

VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (34. or.).

VI.4. Inbertsioak (35. or.).

VI.5. Diru-sarrerak (35. or.).

VI.6. Gorabeherak (36. or.).

VI.7. Hirigintza (36. or.).

1. eranskina. Antsoaingo Udalaren organigrama (38. or.).

2. eranskina. Antsoaingo Udalaren urteko kontu bateratuaren oroitidazkia, 2010eko abenduaren 31ri dagokiona

Oharra: Aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfn Navarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

2011ko ekitaldirako jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Antsoaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoaren eta Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuaren 2010eko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Udalak 1,91 km² dauzka eta 10.603 biztanle zeuzkan 2010eko urtarrilaren 1ean.

Antsoaingo Udalak eta Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuak honako kopuru adierazgarriak erakusten zituzten 2010eko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2010-12-31n
Udala	9.456.051	9.014.594	74
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	522.318	191.266	3
Guztira	9.978.369	9.205.860	77

Udalak bere erakunde autonomoari, Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari alegia, 331.053 euroko ekarpena egin zion 2010ean.

Udalak ondoko mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

- Antsoain, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, eta horren bitartez zerbitzu hauek ematen ditu: etxez etxeko laguntza, drogamenpeketasun-programak, harrera eta orientabide soziala, haurtzaroa eta familia, gizarteratzea eta lan munduan txertatzea, babes-tutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintzak.

Bi mankomunitate horietako kide izateak kostu hauek ekarri dizkio Udalari:

Mankomunitateko zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2010ean
Eskualdeko hiri-garraioa	172.878
Gizarte Zerbitzuak	228.214
Guztira	401.092

Laburbilduz, Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua taula honetan ageri direnak dira:

Udal Zerbitzuak	Udala	EEAA	Mankomunitatea/ Partzuergoa	Zerbitzu- kontratuak	Errentamendua
Administrazio-zerbitzu orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua			X		
0-3 urte bitartekoen haur- eskolak	X				
Musika-eskola				X	
Hirigintza	X				X
Lorategiak	X			X	
Hiri-hondakinak			X		
Uraren ziklo integrala			X		
Garraio publikoa			X		
Liburutegia-Ludoteka	X				
Kontsumitzailearen Arreta Zerb.				X	
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak	X				
Kultura		X			
Kirolak		X			
Kirol-jardueren kudeaketa				X	
Udal-kiroldegiak	X			X	
Babestutako enplegu soziala			X		
Diru-bilketa exekutiboa				X	

Toki-entitate honi aplikatzekoa den araubide juridikoa honako arau hauek osatzen dute, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- Legegintzako 251/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzkoa.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea (KPFL), otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki-entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Tokiko Iraungarritasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.
- 2010eko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne hartuta. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren Kontu Orokorrari buruz dugun iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Antsoingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera nagusiak azaltzen dira aipatutako Kontu Orokorraren laburpen gisa. Seigarren eta azken atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, bi eranskin jaso dira: bata Udalaren organigramarekin, eta bestea Udalak 2010eko ekitaldiko kontuei buruz eginiko memoriarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoingo Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren araukotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Antsoingo Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

b) Udalak eta bere entitate autonomoek 2010ean izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Antsoingo Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n.

d) Ganbera honek 2009ko ekitaldiko txostenaren egindako aholkuak zenbateraino bete diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta erakunde autonomoek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edota osatzeko.

III. IRISMENA

Comptos Ganberak Antsoingo Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Udalaren Kontu Orokorra entitatearen beraren kontuak eta haren erakunde autonomoenak osatzen dute, eta honako egoera finantzarioak biltzen ditu, besteak beste:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta gale-ren eta irabazien kontua.

- Kontu Orokorraren eranskinak: memoria, Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu bateratua, zorraren egoera, eta kontu-hartzaitza-ren txostena.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuburua jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoi dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administrati-boak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketako, kontabilitateko eta barne-kontrolako alderdi nabar-menak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoingo Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioz-tatu dugu:

IV.1. UDALAREN 2010eko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Oraindik ez da 1995eko inbentarioa gaurkotzeko eta egoera-balantzeko ibilgetuaren informazioa-ekin bateratzeko prozesua osatu.

Aurreko paragrafoan aipaturiko salbuespenak alde batera utzita, Udalaren 2010eko ekitaldiko

Kontu Orokorrak fideltasunez erakusten ditu, alderdirik behinenetan, bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, horiek behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar adinako informazioa biltzen du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

IV.2 LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2010eko jardura ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezotasun-printzipioari jarraituz egin dela esan daiteke.

IV.3 2010eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Antsoingo Udalaren hasierako aurrekontu bateratua 10,8 milioi eurokoa da, eta behin betikoa 11,6 milioi eurokoa. Betetze-maila ehuneko 86koa izan da gastuetan eta ehuneko 79koa diru-sarreretan.

Aitortutako betebeharrak 9,98 milioi eurokoak izan dira 2010ean eta aitortutako eskubideak 9,21 milioi eurokoak.

2009ko ekitaldiari dagokionez, gastuak ehuneko 14 murriztu dira, funtsean, inbertsioetako gastuak ehuneko 50 murriztu direlako. Era berean, gastu arruntek aurreko ekitaldikoekin alderatuta ia aldaketarik izan ez dutela nabarmentzen da.

Guztizko diru-sarrerak ehuneko 10 murriztu dira 2009. urtekoekin alderatuta. Aldaketa hori, funtsean, kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 48ko murrizketa izan dutelako justifikatzen da; hala ere, diru-sarrera arruntek ehuneko 5 egin dute gora, transferentzia arrunt gehiago jaso direlako gehienbat.

Laburbilduz, gastatutako 100 eurotatik honako-etarako erabili da eta honakoen bidez finantzatu da bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-bidea	Zenbatekoa
Langileak	34	Tributu bidezko diru-sarrerak	47
Bestelako gastu arruntak	47	Transferentziak	51
Inbertsioak	17	Bestelako diru-sarrerak	2
Finantza-zama	2		
	100		100

Sailkapen funtzionalaren arabera, lau zerbitzuz⁽¹⁾ Udalaren gastu arrunt guztien ehuneko 57 kontsumitzen dute : Kirolak ehuneko 33; Segurtasuna eta Polizia ehuneko 11, Haurtzaindegi edo haur-eskolak ehuneko 7 eta Kultura ehuneko 6.

Aurrekontuko emaitza bateratu dituzte 642.777 euroko defizita izan du, beraz, 2009ko balioa hobetu du (878.303 euroko defizita).

Bere aurrezki gordina eta garbia ere negatiboa dira, nahiz eta aurreko urtean baino gutxiago; diru-sarrerak ez dira funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egiteko nahikoak izan 550.184 eurogatik (2009an 878.303 eurogatik izan ziren). Aurrezki garbi negatibo hori dela-eta, Udalak ez du zor berririk hartzeko gaitasun ekonomikorik.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 2,7koa da, nahiz eta bere muga negatiboa den, ehuneko

4,42koa; ondorioz, ez du zor berririk hartzeko gaitasunik.

Guztizko diruzaintza-gerakin bateratua, zeina 2010eko abenduaren 31n 4,08 eurokoa baitzen, ehuneko 12 murriztu da 2009koaren aldean. Gerakin horretatik, gastu orokorrak finantzatzeko baliatzen dena 2009an 1,5 milioi euro izatetik 2010ean 1,09 milioi euro izatera igaro da.

2010eko abenduaren 31n, epe luzeko zorra 1,69 milioi eurokoa zen, 2009koa, aldiz, 1,9 milioi-koa. Zor hori diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 22koa da, hau da, gaur egun zor berriak hartzeko legezko mugatik (ehuneko 75) behera.

Aurreko ekitaldiei dagokienez, ondorengo koa-roak erakusle nagusien bilakaera erakusten du labur-labur:

	Aurrekontu- emaitza doitua	Aurrezki gordina	Aurrezki garbia	Gastu orokorretarako gerakina	Diruzaintza- gerakina, guztira
2007	333.250	1.238.370	984.270	2.791.062	5.101.341
2008	-348.212	255.286	-44.641	2.493.062	5.960.989
2009	-878.303	-635.653	-878.303	1.528.775	4.617.840
2010	-642.777	-341.700	-550.184	1.087.153	4.078.408

Beraz, 2008an hasitako joera-aldaketari eutsi zaio 2010ean, eraikuntzako sektoreari lotutako diru-sarrerak jaitsi direlako gehienbat. Udalak bere Memorian jada agerian jartzen du "ezin eutsi zaio-la" finantza-egoera larriari, eta "egoera horri ahalik eta denbora-epe laburrenean bilatu beharko zaiola konponbidea".

(1) Toki-entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak garranturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.

IV.4. AHOLKUEN JARRAIPENA

Ganbera honen 2009ko ekitaldiari buruzko aurreko txostenari dagokionez (2011ko otsailean argitaratua), honako aholku hauek bete gabe jarraitzen dutela azpimarratzen dugu:

- *Indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarritzko lanabesa izan daitezen.*

- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea.*

Ondorioz, eta azken laburpen gisa, Antsoaingo Udalak bere finantza-egoera gero eta gehiago hondatzen ari dela erakusten du; egoera horri, orain arte, azken urteotan udal-barruti honetan abian jarri diren hirigintza-jarduera handietatik jasotako baliabideei esker bilatu zaio konponbidea.

Eraikuntzaren sektorearen krisi-egoerak, Nafarroako udalen artean banatzeko transferentzien

zenbatekoari buruzko gaur egungo zalantzek eta inbertsio berrien funtzionamendu-gastuek, gainera, are gehiago larritu dezakete finantza-egoera hori. Bestalde, hirigintza-kudeaketaren ikuspegitik, Antsoaingo plangintza ia-ia amaitua dago.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emango diotenak. Hori guztia ahaztu gabe beste neurri batzuk ere hartu behar direla kudeaketaren hainbat alderdi hobetzeko: gastu-politiken berrikuspena, tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, inbertsioei lehentasuna ematea, diru-laguntzetarako politikaren eragin sozio-ekonomikoa, zenbait zerbitzuren tamaina aztertzea, ematen dituen eta nahitaezkoak ez diren zerbitzuek beren burua finantzatzea eta beste hainbat.

V. 2010eko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA

V.1 AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorutako betebeharrak garbiak	Betetzea (%)	Ordaindutakoa	Ordainketen %	Ordaintzeko dagoena
1 Langile-gastuak	3.833.422	-37.500	3.795.922	3.383.223	% 89	3.334.026	% 99	49.197
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	4.673.365	-9.471	4.663.894	4.091.873	% 88	3.736.386	% 91	355.487
3 Gastu finantzarioak	94.390	-6.000	88.390	45.005	% 51	45.005	% 100	
4 Transferentzia arruntak	642.159	1.540	643.699	598.881	% 93	573.526	% 96	25.355
6 Inbertsio errealak	1.453.542	825.516	2.279.058	1.693.868	% 74	1.578.517	% 93	115.351
8 Finantza-aktiboak	2.000	40	2.040	2.040	% 100	2.040	% 100	
9 Finantza-pasiboak	126.243	37.500	163.743	163.479	% 100	125.979	% 77	37.500
Gastuak, guztira	10.825.120	811.625	11.636.745	9.978.369	% 86	9.395.478	% 94	582.891

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorutako eskubide garbiak	Betetzea ehumekotan	Kobratua	Kobrantzak (%)	Kobratzeke
1 Zuzeneko zergak	2.621.989		2.621.989	2.204.448	% 84	1.955.703	% 89	248.745
2 Zeharkako zergak	299.571		299.571	94.986	% 32	92.473	% 97	2.513
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.972.920	53.134	3.026.054	2.050.629	% 68	1.924.116	% 94	126.513
4 Transferentzia arruntak	3.285.096		3.285.096	3.211.433	% 98	2.987.604	% 93	223.830
5 Ondare diru-sarrerak eta herri-aprob.	190.001		190.001	170.780	% 90	167.707	% 98	3.073
6 Inbertsio errealen besterentzea.				18.658		18.658		
7 Kapital-transferentziak	1.455.542	31.335	1.486.877	1.454.925	% 98	763.620	% 52	691.304
8 Finantza-aktiboak		727.156	727.156					
Diru-sarrerak guztira	10.825.120	811.625	11.636.745	9.205.860	% 79	7.909.881	% 86	1.295.978

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubide garbiak	9.205.860	10.239.137
- Aitortutako betebeharrak	9.978.369	-11.652.750
= AURREKONTU-EMAITZA	-772.509	-1.413.613
DOITZEAK		
- Finantzaketaren desbideratze positiboa	100.712	-131.151
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa	6.529	
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	223.916	666.461
= AURREKONTU-EMAITZA DOITUA	-642.777	-878.303

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	2.207.093	2.312.679
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: oraingo ekitaldia	1.296.245	1.622.595
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.344.740	1.088.211
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	72.974	117.647
+ Ordainketen itzulketak	-	-
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-	-
- Bilketa zaileko eskubideak	-506.866	-515.774
- ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	805.682	1.903.262
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: oraingo ekitaldia	582.891	751.669
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.805	219.412
+ Diru-sarreraren itzulketak	1.023	1.565
- Aplikatzeko dauden gastuak	-739	-561
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	220.702	931.177
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	2.670.469	4.208.423
+ Finantziario-desbideratze metatu negatiboak	6.529	-
= DIRUZAINZA-GERAKINA, GUZTIRA	4.078.408	4.617.840
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	100.712	-
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	2.890.543	3.089.065
Gastu Orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.087.152	1.528.775

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

Deskribapena	2010	2009
A IBILGETUA	26.511.666	61.045.125
1 Ibilgetu materiala	25.631.290	23.909.207
2 Ibilgetu ez-materiala	510.375	475.554
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak	351.928	36.642.292
4 Herri-ondasunak	15.731	15.730
5 Finantza-ibilgetua	2.342	2.342
C ZIRKULATZAILEA	6.925.740	8.972.120
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	2.713.959	2.828.453
9 Finantza-kontuak	2.674.080	4.209.529
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatze ak eragindako doitzeak	-	-
11 Aplikatzeko dagoen emaitza	1.537.701	1.934.138
AKTIBOA, GUZTIRA	33.437.406	70.017.245

PASIBOA

Deskribapena	2010	2009
A FUNTS BEREKIAK	30.932.922	66.251.880
1 Ondarea eta erreserbak	21.609.498	58.383.380
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	-	-
3 Kapitaleko diru-laguntzak	9.323.424	7.868.500
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	1.698.063	1.861.542
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	1.698.063	1.861.542
D EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	806.421	1.903.823
5 Aurrekontu itxien hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	806.421	1.903.823
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	-	-
PASIBOAREN GUZTIZKOA	33.437.406	70.017.245

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA		HARTZEKOA			
DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2009	DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2009
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.552.956	1.496.884
61 Langile-gastuak	3.447.194	3.479.745	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	566.157	630.579
62 Finantza-gastuak	45.005	88.878	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.536.210	1.427.087
63 Tributuak	25.980	26.356	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	449.280	447.930
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo-zerbitzuak	4.001.921	4.001.281	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	3.211.433	2.995.648
67 Transferentzia arruntak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	313.945	303.397
68 Kapital transferentziak	598.881	521.728	78 Bestelako diru-sarriak	102.295	100.782
69 Amortizazio eta horniduretarako ekitaldi zuzkidura	0	0	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.387.582	1.205.085	800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	1.774.287	1.920.766
GUZTIRA	9.506.564	9.323.073	GUZTIRA	9.506.564	9.323.073

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA		HARTZEKOA			
DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2009	DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2009
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	1.774.287	1.920.766	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	131.141	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxiko aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	13.372	84 Itxiko aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	105.445	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	0	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	1.537.701	1.934.138
GUZTIRA	1.774.287	1.934.138	GUZTIRA	1.774.287	1.934.138

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKU- AK

Jarraian, Comptos Ganbera honen aburuz, Udalak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolerako sistemak hobetzeko, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzean jarraitu behar dituen ondorioztapen eta aholku nagusiak aipatzen dira.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2010eko ekitaldirako aurrekontu orokor bakarra ez zen urte bereko maiatzera arte indarrean jarri, hau da, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Udal-ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta eguneratze-prozesuan dago.

Azpimarratzekoa da balantzean ibilgetua 34,3 milioi murriztu dela, kontabilitate-araudiarekin bat eginez, Erabilera orokorrerako azpiegituren eta ondasunen kontutik Erabilera orokorrari emandako ondarea kontura egindako transferentziaren ondorioz, izaera horretako ondasunetan amaitutako inbertsioengatik.

Era berean, nabarmentzekoa da Udalak bere ibilgetuko elementuen prezioaren beherapena erakusten duela kontabilitatean, eta 1,4 milioiko zuzkidura eragin du horrek 2010ean.

Langileak	Lanpostuak, guztira
Udalbatzarkideak	1
Funtzionarioak	37
Lan-kontratudun finkoak	7
Aldi baterako lan-kontratudunak	33
Guztira	78

Abenduaren 31n aldi baterako lan-kontratua duten 33 pertsoneri dagokienez, honako hau adierazten dugu:

- Kontratatupeko 18 pertsona plantillan eskaintzeko zeuden lanpostu hutsak betetzen ari ziren. Lanpostu horiek plantilla guztiaren ehuneko 23 dira.
- 9 lanpostu obra-kontratuek edo zerbitzu jakinetakoek betetzen zituzten.
- 6 lanpostu gaixotasunen ondoriozko ordezkariak betetzeko kontratatzen dira.

Gure aholkuak:

- Aurrekontuak indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, kudeaketarako oinarritzko tresna izan daitezen.

- Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea.

- Udal-inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatze-prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera.

VI.2 LANGILEAK

1. kapituluan –"Langile-gastuak"– 3.383.223 euroko betebeharrak aitortu bateratuak erregistratu dira; alegia, 2010ean sortutako gastu guztien ehuneko 34 eta gastu arrunten ehuneko 42. Kapitulu honetako betetze-maila ehuneko 89koa izan da, eta 2009arekin alderatuta ia ehuneko 1 murriztu da.

Kapitulu honetako gastu bateratutik, Udalari 3.221.521 euro dagozkio, eta Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari, berriz, 161.702 euro.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010erako plantilla organikoa 2010eko maiatzaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean onetsi zen behin betiko. Abenduaren 31ko langileen zerrenda ondorengoa da zehatz-mehatz:

2009. urtearen aldean, langile-kopurua pertsona batean igo da.

Udalak onetsi zuen "Antsoaingo Udalaren eta bere Patronatuen zerbitzuko funtzionarioen lan-baldintzei buruzko erabakia, 2009-2012 urteetarako". Ganbera honek 2009ko ekitaldiko txostenean adierazi eta bi ekitaldi horietako memorietan udaleko kontu-hartzaileak azpimarratu zuen bezala, hitzarmen honen 10. artikuluan arautzen den jaiegunetarako lanaren ordain ekonomikoa –funtsean udaltzaingoari eta kirol-instalazioetako langileei aplikadakiokeena– Nafarroako Administrazio Publikoen

Zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan aurreikusitakoa baino handiagoa da, bereziki jaiegun ez diren egunetako lanaldien zati bat jaiegun gisa hartzen baitu.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har.

Azkenik, Udalak ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea betetzen duela egiaztatu dugu, zeinaren arabera defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatera moldatzen diren. 2010ean, Udalaren eta bere Entitate Autonomoen langile-gastuen murrizketa 37.500 eurokoa izan da, eta epe luzerako mailegu baten aurretiko amortizazio partziala egiteko baliatu da. Honako koadroan adierazten dira aurrezki honen xehetasunak:

Gastuen murrizketa	Udala	EEAA	Guztira	Nora
Enpleguak	34.310	1.373	35.683	Maileguaren aurretiko amortizazioa
Udalbatzarkideak	1.817		1.817	Maileguaren aurretiko amortizazioa
Guztira	36.127	1.373	37.500	Maileguaren aurretiko amortizazioa

Gure aholkuak:

- *Plantilla organikoan aurreikusten diren lanpostuek benetan betetzen direnekin duten arazoikotasuna aztertzea, plantilla organikoa benetako beharretara egokitzen den egiaztatzeke helburuarekin.*

- *Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontua duten lanpostu huts guztiak lan-egonkortasun publikoan sartzea.*

- *Udalaren lan-baldintzei buruzko akordioko 10. artikulua Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakora egokitzea, batez ere jaieguntzat hartzen denari dagokienez.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuak 4.091.873 eurora iritsi ziren 2010ean. Kopuru horretatik, 3.736.785 euro Udalarri dagozkio, eta 355.088 euro Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari.

Aitortutako betebeharrak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 41 hartzen dute, eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 50. Ez da ia aldaketarik egon, 2009ko ekitaldiaren aldean ehuneko 0,02 murriztu baita.

Zerbitzuak kontratatzeke espediente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe agertzen dira):

Deskribapena	Kontratu-mota	Prozedura	Eskaintzak egin dituztenen kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Erabilitako zenbatekoa
Aseguru-polizen kontratazioa.	Laguntza	Irekia	6	75.500	54.951	54.951
Musika Eskolako programaren garapena	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	2	221.100	210.400	68.515

Espediente horri eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren bitartez egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzeko den araudia zentzuz errespetatu dela.

VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioak direla-eta aitortutako betebeharrak bateratuek 1.693.868 euro egiten dute, betetze-maila ehuneko 74koa izan da, eta 2010erako aurrekontuan betetako osoaren ehuneko 17 osatzen dute. 2009ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 50 murriztu dira.

Zenbateko handieneko obrak Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsetan

baliabideekin alde finantzatu diren proiektuei dagozkie; hark 891.095 euro jarri ditu guztira. Zenbateko horren ehuneko 85 kobratu da eta ekitaldia ixtean 134.658 euro kobratzeko geratu dira, 2011ko ekitaldia ixtean kobratu direnak.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat eta 2010ean egindako ondoko esleipenak aztertu dira (zenbatekoak BEZik gabe agertzen dira):

Deskribapena	Kontratu-mota	Prozedura	Eskaintzak egin dituztenen kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Betetako azken zenbatekoa edo 2010era artekoa
Kanpoko argi publikoa berritzea	Obra	Europar Batasunean publikitaterik egin gabeko prozedura negoziatua	3	153.722	153.403	158.375
Udalaren kirol-instalazioetako ur-kontsumoaren hobekuntza eta berrerrabilera	Obra	Europar Batasunean publikitaterik egin gabeko prozedura negoziatua	1	46.000	46.000	46.793
Energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak jartzea	Obra	Europar Batasunean publikitaterik egin gabeko prozedura negoziatua	2	105.690	105.690	107.474
San Cristobal-Ezkaba mendiaren garbiketa, berreskuratzea, babesa eta kontserbazioa	Obra	Negoziatua, Europar Batasunean publikitaterik egin gabeko prozedura	4	207.000	206.400	206.400
A.C.S-ren produkzio eta banaketarako instalazioak berritzea legionelosia saihesteko igerileku eta kiroldegietan	Obra	Europar Batasunean publikitaterik egin gabeko prozedura negoziatua	1	385.793	385.790	362.848

Eginiko azterketan oinarriturik egiaztatu da kontratuei buruzko legediaren alderdi garrantzitsuenak betetzen direla bai kontratazio-espedituentz izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

VI.5 DIRU-SARRERAK

2010eko ekitaldian aitorturiko eskubide bateratuek 9.205.860 euro egiten dute; 9.014.594 euro Udalari dagozkio, eta 191.265 euro, berriz, Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari.

Diru-sarreraren betetze-maila ehuneko 79koa izan da. Tributuen bidezko diru-sarreraren eta kirol-instalazioen aurreikuspenak bete ez izana izan da ehuneko ehun ez betetzearen arrazoia. Kirol-instalazioei dagokienez, aurreikusitakoaren ehuneko 60 eskasa likidatu da, hau da, milioi bat, eta aurreikuspenak 1,7 milioikoak ziren.

2009ko ekitaldiarekin alderatuta, aitorturiko eskubide bateratuak ehuneko 10 jaitsi dira. Hona, kapituluz kapitulu:

Diru-sarreraren kapituluak	2010eko aitortutako eskubideak	2009ko aitortutako eskubideak	Aldea, ehunekotan 10/09
1 Zuzeneko zergak	2.204.448	2.121.235	4
2 Zeharkako zergak	94.986	57.179	66
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.050.629	2.012.285	2
4 Transferentzia arruntak	3.211.433	2.995.648	7
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	170.780	207.110	-17
Diru-sarrera arruntak	7.732.277	7.393.457	4
6 Inbertsio errealeen besterentzea	18.658	-	-
7 Kapital-transferentziak	1.454.925	2.845.680	-49
Kapital bidezko diru-sarrerak	1.473.583	2.845.680	-52
Diru-sarrerak guztira	9.205.860	10.239.137	-% 10

Azpimarratzekoa da diru-sarrera arruntak ehuneko 4 hazi direla, bai transferentzia arruntak bai zergak gehitu direlako. Ondorengo koadroan aitor-tutako zenbatekoak 2009an eta 2010ean izan zuen bilakaera agertzen da:

Kontzeptua	2010	2009	Aldea, ehunekotan 2010/2009
Lurraren kontribuzioa	1.187.298	1.119.303	6
Ibilgailuak	449.280	447.930	0
Lurren balio gehikuntza	313.945	303.397	4
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	253.926	250.606	1
EIOZ	94.986	57.179	66
Guztira	2.299.435	2.178.415	% 6

Zerga horietan aplikatutako tasak honakoak izan dira:

	2/95 Foru Legea	Udala, 2010
Lurraldeko kontribuzioa	0,10 - 0,50 bitartean	0,181
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	1 - 1,4 bitartean	1,4
Lurren balioaren gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,1 - 3,6 bitartean	3,2 - 3,4 bitartean
Karga-tasa	8 - 20 bitartean	10,5 eta 12
EIOZ	2 - 5 bitartean	5

Tasa horiek, lurralde-kontribuzioari dagokionez izan ezik, indarrean den arautegiak ezarritako tarte ertain-altuan kokatzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten azterketa egin ondoren, horiek, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

Gure aholkuak:

- *Gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, diru-sarreraren aurrekontua egitean zerga-bilketarako benetako aukerak kalkulatzeko saiatzea.*

VI.6. GORABEHERAK

Emandako informazioaren arabera, Udala hainbat prozedura judizialekin sartuta dago, eta horien artean honakoak dira aipatzekoak, 2010eko abenduaren 31n:

- Kirol-instalazio berrien eraikuntza-enpresaren erreklamazioa atzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko ordezkotako betearazpenaren bitartez eginiko gastuen likidazioaren aurka; betearazpena

2007an egin zen eta 362.256,87 euroko zenbatekoa kontabilizatu zen.

- "Igerilekuak egitea" proiektua idatzi zuen arkitektoaren erreklamazioa, atzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko obren ordezkotako betearazpenaren bitartez eginiko gastuen eta sorturiko kalte-galeren likidazioaren aurka; 366.174,39 eurokoa da likidazioaren nagusia, eta horri erantsi behar zaizkio 36.619,98 euro, errekarquei eta kostuei dagozkienak.

- Eraikuntza-enpresa baten erreklamazioak, tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziarengatik tasen bi likidazioaren aurkakoak (aldamioekin eta hesiekin), bata 35.609,54 eurokoa (nagusia gehi errekarquei eta kostuei) eta bestea 25.798,50 eurokoa; etxebizitza-eraikin baten eraikuntzan gertatu zen jabari publikoaren okupazioa.

VI.7. HIRIGINTZA

Antsoingo Udalak berezko baliabideekin egin dituen hirigintza-lanak, nahiz eta zerbitzuen errentamendu-kontratu bat duen arkitekto batekin, eta haren ondorioz 55.710 euroko gastua sortu zen 2010ean.

Antsoaingo Udal Plana 1997an onartu zen, eta ia erabat garatuta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean dauden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

2009an ekin zitzaion Antsoaingo Udal Plana berrikusteari, Udalaren eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren alde zuzeneko hitzarmenaren eta Udal Plan Orokor berria taxutzeko eta idazteko Lankidetzaren Hitzarmenaren onespenezkin. 2010. urtean zehar berrikuspen-lanak egiten jarraitu da.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondareari dagokion berriazko inbentario eta erregistrorik, nahiz eta Lurzoruaren Udal Ondaretik datozen baliabide atxikien jarraipena egiten duen.

Beraz, 1994tik 2010era arte, Udalak 17,2 milioi euroko diru-sarrerak izan ditu ondarearen eta hiri-

gintzako aprobetxamenduen besterentzeagatik; diru-sarrera horietatik guztira 2,9 milioi aplikatzeko zeuden 2010eko abenduaren 31n.

Gure aholkuak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzeta.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela izaeraz.*

José Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko abenduaren 2an

Lehendakariak: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. ANTSOAINGO UDALAREN ORGANIGRAMA



